



Lehiaren
Euskal Agintaritza

Autoridad Vasca
de la Competencia

PRENTSA OHARRA

Lehiaren Euskal Agintaritzak EAEko hiriburuetan dauden erabilera turistikorako etxebizitzaren egoera aztertuko duen ikerketa juridiko-ekonomikoa burutzen dago

Lehiaren Euskal Agintaritzak gaur egun erabilera turistikorako etxebizitzaren sektorea Euskadiko hiru hiriburuetan aztertuko duen ikerketa juridiko-ekonomikoaren burutzea martxan jarri du, hau dagokien administrazioek, datu objektiboak izateko asmoarekin, eta beharrezkoa izanez gero, indarreko Hiri Antolakuntzarako Plangintza Orokorrak eta dagozkion garapen-arauen egokitzeari begira. Horrela, argitzen saiatuko da udal arauak, beharrezkoa ez den ezta proportzionala ere ez den edozein motatako sarrera muga bat edo beste barneratzen dituzten, erabilera turistikorako etxebizitzaren edo erabilera turistikorako ohiko etxebizitzako gelak ekintza ekonomikoaren burutze esplorazioan, Zerbitzuen Zuzentarauaren eta bere Transposizio Legearen preskribatzeak ikusita.

Bilbo, 2018ko otsailak 09

Ikerketa honen lanketa Lehiaren Euskal Agintaritzaren Kontseiluak (LEA) pasa den 2017ko abenduaren 17an Euskal Agintaritzaren Kontseiluak baietsi zuen "Bilboko HAPOaren aldaketa xehatua" txostenaren onarpenaren ondorio izan zen. Halaber, otsailaren 6an onartutako Donostiako Udaletxearen Etxebizitza turistikorako hirigintza erabilera eta ohiko etxebizitzako gelak erabilera turistikorako alokatzea arautzen duen ordenantza txostena justifikatu gabeko mugen existentzia posibleekin eta sektorearen errealitatea ezagutzeko hasitako ikerketaren behararekin bukatzen da.

LEAko onetsitako txostenak nabarmentzen du, Donostiako Udaletxeak Etxebizitza turistikorako hirigintza erabilera eta ohiko etxebizitzako gelak erabilera turistikorako alokatzea arautzen duen ordenantza tramitatzen zegoela ezagutu eta gero, pasa den irailean Donostiako Udalari aipatutako ordenantzari buruzko administrazio-espeditentearen kopia eskatu zion bere ikerketari ekiteko. LEAren ohiko praktika da indarrean dauden xedapenen hobekuntzen alde egitea eta administrazio desberdinekin lan egitea lehiaren onuren sustapenean, "Merkatuetako lehia mantendu edo berriz ezartzeko proposamenak helaraztea herri-administrazioei" bere bertute gaitasuna da.

Txostena